

KONPOSIZIOA

Lumière anaiek “lehenengo filma” egin zuten 1895. urtean, beraiek asmatutako zinematografoa erabiliz. Zinemari ofizialki hasiera pelikula honekin eman zitaion.

Konposaketa: elementu desberdinak enkuadrean kokatzeko modua.

Konposaketa = hautaketa

Konposizioaren helburuak:

- Ikuslearen arreta guk aukeratutako interesgunera zuzentzeko
- Ikuslearengan erreakzioak sortzeko
- Esanahiak eraikitzeko


Garbitasuna

Irudi batean zenbat eta elementu gehiago erakutsi, orduan eta zailagoa egingo zaio burmuinari irudiaren “irakurketa”. Ikusleak argi izan behar du iruditik jaso behar duen informazioa.

Pisu bisuala

Irudi baten pisu bisuala orekatzea, elementuen sortzen duten arreta antolatzea da. Horretarako elementuen arteko harreman fisikoari erreparatu behar diogu.

- Figura-hondoa harremana
 - Tonu argiak hondo ilun baten kontra gehiago nabarmentzen dira alderantziz baino (1. argazkia)



- Hondo uniforme batean kolore ezberdinena duen objektuak gehiago pisatzen du. Gainera, kolore beroek hotzek baino pisu handiagoa dute (kotxe gorria)



- Tamaina handiko elementuek tamaina txikiko elementuek baino pisu handiagoa dute (zuhaitza)



- Rudolph arnheim-en eskemak:
 - Zentrala: elementu bat gailentzen da



- Binarioa: bi elementu gailentzen dira



- Atonalak: pisu berdina duten elementu askoz osatuak



- Jerarkikoak: pisu handia duten elementuetatik pisu gutxiago dutenetara



- Gestalt-eko printzipioak: formen inguruan ditugun pertzepzio bisualen printzipioak

Konposaketarako oinarriak

Edozein konposaketetan interesgune bakarra egon behar du. Hori lortzeko, beste elementuak interesgune horren arabera antolatuko ditugu. Horretarako estrategiak:

- Fokuratzea eta eremu sakonera: enfokatuta dagoenak arreta bereganatzen du. Enfoke motak:
 - Orokorra: elementu guztiak fokuratuta
 - Selettiboa: elementu bat fokuratuta, beste guztia ez. Enfokatuta dagoena interesgune bihurtzen da eta narrazioa eraikitzen laguntzen du.

- Enkoadraketa

- Enkoadraketa betetzea: interesgunea den objektu edo pertsonaiak ahalik eta eremu zabalena betetzen du enkoadraketan



- Birkoadraketa: “koadroa koadroaren barruan” estrategiarekin interesgunea azpimarratzen da.



- Lerro nagusiak: lerroak irudi batzuei sakontasuna emateko aprobetxatu ditzakegu. Gida lerroak honakoak izan daitezke:



Horizontalak



Bertikalak



Diagonalak



Hurbilkorrak



Kurbak, batez ere S formadunak

Zeruertza: lerro nagusi “klasikoa”. Zeruertza edo ardatz horizontalarekin jolastea adierazgarria izan daiteke. Horrela planifikatu ohi dira plano aberranteak.




- Enkoadraketarik eza: Enkoadraketarik ezak ikuslea zirikatzea du helburu. Hasiera batean, irudia berriz enkoadratzeko joera eragiten du ikuslearengan. Koadroaren ertzak izugarri azpimarratzen ditu, balio adierazgarri eta estetikoak nabarmenduz.



Elementuen kokapena


- Zeruertza: Zeruaren eta lurraren artean simetria lortu nahi badugu, zeruertza erdian koka genezake. Horrela ez bada, horizontea heren bertikalekin bat etorraziko dugu.
- Begiradaren legea: Pertsonaia bat beste pertsonaia bati begira badago, enkoadraketa eskualdean dagoen pertsonaiak ezkererantz begiratuko du, eta alderantziz.
- Herenen legea: irudi orekatuak sortzeko erabiltzen da. Irudia 9 herenetan banatzen da. Interesgunea lerroak sortutako edozein elkargunetan kokatuko dugu.



Irudi batean bi interesgune baditugu, biak elkarguneetan kokatuko ditugu, ahal bada, diagonalean.



- Simetria dinamikoa: Animen oso erabilia. Irudia gurutzatzen duen marra diagonal imajinario bat marrazten dugu eta hortik abiatuta beste marra guztiak marrazten ditugu, elkarguneetan interesguneak jarritz. Teknika honen emaitza dinamikoagoa da.



- Simetria: interesgunea erdigunean.
 - Irudia bi zati berdinetan banatzen badugu, pisu bisual bera egongo da zati bietan.



- Hiruki formako konposizioa: telebistan asko erabiltzen da eta konposizio egonkorra lortzen da. Aktore baten lehen planoak hiruki forma hartzen du. Sorbalda oinarri harturik, bere bere gainean modu egonkorrean pausatuko da.



- Oreka asimetrikoa edo informala: irudia bi zati berdinetan banatzen badugu, pisu bisuala ez da berdina izango, baina hala ere irudia "orekatuta" egongo da.



- Argiztapena eta kolorea: argiztapenak kontrastea eta argi-ilunak sortzen ditu, eta horrek interesguneak behar bezala konposatzen lagun diezaguke. Gauza bera gertatzen da kolorearekin.

